

Sareko ahotsak



Partaidetza eta
gizarte ehuna



Errespetua eta
inklusioa



Aire zabaleko
eremuak eta eraikinak

Sareko Ahotsak

Jardunbide egoki honek premiazko errealitate batean jartzen du arreta: adinekoen ongizate fisiko, emozional eta sozialean eragin handia (eta negatiboa) duen nahi gabeko bakardadean. Esku hartzeak ikuspegi berritzaile eta sakonki gizatiar batetik heltzen dio arazo horri.

Etkez etxeko arretarako programaren esparruan, aukera handiak eskaintzen dituen tresna teknologiko bat sartu da: adinekoen etxeetan zuzenean instalatzen diren ahots gailu irisgarri eta erabilerrazak. Gailu horiek, adinekoa aro digitalera modu praktiko eta dibertigarrian hurbiltzeaz gain, horien aliatu bihurtzen dira egunerokoan, funtzio erabilgarriak, gogorazpenak, laguntza birtuala eta eduki pertsonalizatueterako sarbidea eskainiz.

Baina ekimen horren benetako balioa haien inguruan sortzen den lotura sarean datza. Gurutze Gorriko boluntarioek honako hauek egiten dituzte:

- Instalazio pertsonalizatuak etxeetan.
- Gailuak erabiltzen ikasteko trebakuntza lagunkoia
- Etengabeko jarraipena, deien, bideo deien eta bisiten bidez.
- Laguntza emozionala ikuspegi afektibo eta hurbilarekin.

Eta proiektuaren alderdirik garrantzitsuena da belaunaldien arteko talde jardueretan eta kultura jardueretan parte hartzea sustatzen duela, eta horietan adinekoek:

- Sare sozialak zabaltzen dituztela, eta beren eskumenak indartzen.
- Bestela ezagutuko ez lituzketen ondare espazioak eta kultura proposamen garaikideak ezagutzen dituztela.
- Beste belaunaldi batzuekin esperientziak partekatzen dituztela, eta ikasteko, dibertitzeko eta elkarrekin bizitzeko plazerari atxikitzen zaiela berriro.

1. Erakunde sustatzaileak

Euskadiko Gurutze Gorria

2. Erakunde mota

Pribatua

3. Xede taldea

Etxean bizi diren eta egoera ahulean dauden adineko pertsonak.

Aldagai hauetako bat edo batzuk izan ditzakete: adin nagusia, gizarte harreman gutxi, bakardade edo isolamendu egoera, narriadura kognitiboa, baliabide ekonomiko mugatuak, eskura dauden baliabideak ez ezagutzea.

4. Lurralde eremua

Euskadi

5. Egoera

Ezartzeko fasean

6. Etiketak

Inklusioa, alfabetatze digitala, laguntza, teknologia lagunkoia, belaunaldien arteko lotura, bideodeiak, arreta pertsonalizatua, entretenimendua, kultura, taldea, autonomia, duintasuna, komunitatearen konpromisoa.

7. Helburuak

HELBURU OROKORRA

Bakardade egoeran dauden adinekoen bizi kalitatea hobetzen laguntzea, teknologia irisgarria erabiliz, boluntariotzaren parte hartze aktiboan oinarritutako laguntza emozional eta sozialeko eredu bat baliatuz eta loturak, inklusio digitala eta kultur esperientzia esanguratsuak sortuz.

BERARIAZKO HELBURUAK

- Bakardade eta isolamendu sentimenduak murriztea, etxe ingurunean laguntza sareak sortuz.
- Adinekoen inklusio digitala sustatzea, erraz erabiltzeko eta haien gaitasunetara egokitutako ahots gailuen bidez.

- Ikaskuntza praktiko eta dibertigarria sustatzea, haien egunerokoan autonomia, autoestimua eta parte hartze aktiboa indartzeko.
- Adinekoen eta boluntarioen artean lotura afektiboak sortzea, bisiten, deien eta teknologiaren erabilerari buruzko prestakuntza pertsonalizatuaren bidez.
- Partaidetza soziala eta kulturala bultzatzea, taldeko jardueretarako, kultur irteeretarako eta belaunaldien arteko espazioetarako sarbidea erraztuz.
- Adinekoek komunitatean duten zereginari balio handiagoa ematea, haien esperientzia, jakintzak eta ikasteko eta partekatze gaitasuna ageriko eginez.
- Lantalde teknikoaren eta boluntarioen arteko elkarlana sustatzea, esku hartze integral, afektibo eta jasangarri bat bermatzeko.

8. Metodologia

Adinekoekin esku hartzen dugun esperientziatik eta egindako ibilbidetik abiatuta diseinatu eta gauzatu zen LAGUN EGITEN DUTEN AHOTSAK jarduera, ebidentzia sozial eta teknologikoetan oinarrituta, eta etxez etxeko laguntzan, alfabetatze digitalean eta belaunaldien arteko lanean aurretik gauzatutako jardunbide egokien bermearekin.

Hauek dira elementu metodologiko nagusiak:

- Hasierako ebaluazio pertsonalizatua, adineko bakoitzaren profila, beharrak eta autonomia maila identifikatzen dituenak.
- Ahots gailua etxean instalatzea, eguneroko ingurunera egokituta eta konfigurazio pertsonalizatuarekin.
- Gaikuntza indibidualizatua boluntarioen eta talde teknikoaren aldetik, ikuspegi pedagogiko, progresibo eta ludikoarekin.
- Etengabeko jarraipena, deien, bisiten eta taldeko saioen bidez, erabilera, gogobetetasuna eta inpaktu emozionala ebaluatzeko.
- Taldekako kultura eta jolas jarduerak, gailua komunikatzeko eta sozializatzeko kanal gisa erabiltzea indartzen dutenak.

Metodologia hori hainbat ikerketa eta erreferentzian oinarritzen da. Haien arabera, teknologiaren erabilera lagundua nabarmentzekoa da bakardade sentsazioa murrizteko, autoestimua hobetzeko, gai izatearen zentzua handitzeko eta baliabide komunitarioetarako sarbidea errazteko.

9. Alderdi berritzaileak

LAGUN EGITEN DUTEN AHOTSAK proposamen aitzindaria da adinekoentzako arreta sozialean, teknologia lagunkoia eta borondatezko laguntzaren giza berotasuna uztartzen baititu. Nahi gabeko bakardadeari eta inklusio digitalari heltzeko modua eraldatzen duten funtsezko hainbat elementutan islatzen da haren izaera berritzailea.

Ekimenak berekin dakartza lagunkoitasunarekin loturiko ekintza eta metodologia berriak-

- Teknologia emozionalki erabilgarria: ahots gailuak erabiltzeak ez du soilik funtzionaltasun tekniko bat bilatzen, ikuspegi afektibo eta enpatiko batetik konpainia, laguntza eta errutina sortzea ere bai.
- Esku hartze konbinatuaren metodologia: etxeko instalazioa, prestakuntza pertsonalizatua, etengabeko jarraipena eta aktibazio soziala batzen dituen estrategia bat egituratu da, pertsona eta taldea kontuan hartuta.
- Ikaskuntza dibertigarri eta praktikoa: Adinekoek, erabiltzen ikasteaz gain, beren eguneroko bizitzan txertatzen dute teknologia, ahalduentzeko eta ongizaterako tresna moduan.
- Parte hartzeko kultur aktibazioa: ondare eta kultura lekuetara egiten diren talde irteerak arlo ludiko, hezitzaile eta belaunaldien artekoa jorratzen dute, eta inpaktu emozional eta soziala indartzen.

Transferigarritasuna eta erreplikatzeko aukera

- Lurralde eskalagarritasuna: jarduera erraz erreplika daiteke beste landa edo hiri ingurune batzuetan, gailuen erabilerraztasunari eta laguntza ereduaren malgutasunari esker.
- Hainbat profiletara egokitzeko gaitasuna: autonomia maila desberdinetako adinekoak sartzeko aukera ematen du, eta beste kolektibo zaurgarri batzuetara ere zabal daiteke.
- Kostuak: gailu teknologikoak kostu txikikoak eta erabilerrazak direnez, errazagoa da gizarte erakundeek, tokiko administrazioek edo ekimen komunitarioek berenganatzea.
- Eredu ireki eta kolaboratiboa: hirugarren sektoreko beste erakunde batzuek ere ezar dezakete, beren boluntarioen bidez eta jarduerak beraien lurralde errealitatera egokituz.

Herritarren parte hartze aktiboa

- Adinekoarengan pentsatutako diseinua: gailuen eduki eta funtzioak erabiltzaileen benetako beharren arabera konfiguratzeko dira, eta taldeko jarduerak haiekin batera aukeratzen dira.

- Boluntario protagonistak: boluntarioak proiektuaren funtsezko osagaia dira, ez gauzatzeko orduan bakarrik, baita ohar eta proposamenen bidez etengabe hobetzeko prozesuan ere.
- Etengabeko entzutea eta partaidetzazko ebaluazioa: jarraipena egiteko deiek, bisitek eta taldeko espazioek aukera ematen dute programa elikatzen duten iritziak, iradokizunak eta emozioak jasotzeko.
- Baterako sorkuntza komunitarioa: adinekoak beren prozesuen protagonista bihurtzen dira eta komunitate osoari mesede egiten dioten afektu eta ikaskuntza sareak eraikitzen dituzte.

10. Ebaluazioa eta emaitzak

LAGUN EGITEN DUTEN AHOTSAK jardunbide egokiaren ebaluazioa.

Inpaktu pertsonal, emozional eta sozialean ardaztutako parte hartzeko prozesu etengabe moduan diseinatu da jardunbide egoki horren ebaluazioa.

Emaitzak neurtzeko, entzute aktiboa ere baliatu da; alegia, proiektua barrutik bizi dutenei (adinekoei, boluntarioei eta talde teknikoari) entzun zaie.

Ebaluazio eta jarraipen sistema:

- Gogobetetasun inkestak eta pertzepzio emozionala: gailua instalatu ondoren, tarteka aplikatu dira, bizi kalitatean, hautemandako konpainia mailan eta inklusio digitalaren mailan duen eragina baloratzeko.
- Jardueren erregistroa: bisitetan, prestakuntzetan, jarraipen deietan eta kultur jardueretan izandako parte hartzea dokumentatzen da; trazabilitate horrek erabilera teknologikoaren inplikazio maila eta bilakaera aztertzea ahalbidetzen du.
- Elkarriketa kualitatiboak: adinekoei eta boluntarioei eginak, bizipenak, emozioak eta iradokizunak jasotzeko eta programaren onura ez-ukigarriak baloratzeko.

Adierazle espezifikoak:

- Instalatutako gailuen kopurua (gaur egun 483 daude Euskadin instalatuta)
- Boluntarioen gogobetetze maila haien inplikazioari dagokionez
- Talde eta kultura jardueretako parte hartzea
- Jarraipen tekniko eta emozionala: Gurutze Gorriko talde profesionalak koordinatzen du, kasuen bilakaerari eta doikuntza pertsonalizatuei buruzko barne erregistroekin.
- Betetako helburuak eta jasotako emaitzak

- Jardueraren emaitzak esanguratsuak izan dira, bai maila kuantitatiboan, bai kualitatiboan:
- Bakardade sentsazioa murriztea: parte hartzaile askok adierazi zuten lagunduago sentitu zirela, eta aktiboago eta emozionalki konektatuago.
- Benetako inklusio digitala: teknologian aldeztetik esperientzia gutxi duten adinekoek gailuak beren kabuz erabiltzea lortzen dute, eta harrotasuna eta ikasteko gogoia adierazten dute.
- Boluntarioria indartzea: proiektuak sare sendo eta konprometitu bat sortzen du, motibazioa eta prestakuntza duten eta emozionalki konektatuta dauden boluntarioekin.
- Aktibazio kultural eta soziala: kultur irteera ugari egiten dira eta, horiei esker, ondare lekuak eta gaur egungo ekitaldiak ezagutzen dira, jakin mina, gogoia eta pertenezia sentimendua piztuz.
- Komunitatea sortzea: jarduera adinekoen, familiaren eta urrun dauden lagunen arteko harremanak ari da sustatzen, baita boluntario eta ingurukoekikoak ere, eta lotura iraunkorrak eta ikasteko eta pozik egoteko espazio partekatuak eraikitzen laguntzen du.
- Erreplikagarritasuna eta zabalkuntza: programaren arrakastari esker, lankidetzak eta proposamen berriak sortu dira, ekimena beste eremu batzuetara zabaltzeko, ikuspegi humano eta afektiboari eutsita.

Ebaluazioak erakusten du LAGUNTZEN DUTEN AHOTSAK jarduerak bete egin dituela bere helburuak, eta harreman, ikaskuntza eta duintasun aukera berriak sortzen dituela. Jarduera bizia da, eragin sakona eta eraldaketarako benetako gaitasuna dituen